

# 6

## Eskerrona

**Iñaki Martínez de Luna**

UPV/EHU - Euskal Herrriko Unibertsitatea

i.martinezdeluna@ehu.es

**Laburpena.** Eskerronik beroenak *Euskarak duen Framing Berri baten premia asetzeko proposamenaren irakurketa kritikoa* egin duten lagunei, egindako iruzkin eta emandako ideiak aberatsengatik. Txosteneko proposamena ebaluatu dutenak, euskal soziolinguistikaren uretan igerilari trebatuak izanik, abilezia handiz murgildu dira nire lerroen zurrumbiloan itota bukatzeko batere beldurrik gabe. Benetan estimatuta daude ekarpen horiek, nire lerroen zioa horixe bera zen: gogoetak eragitea eta, horien eskutik, euskararentzako bide berriak arakatzea. Hurrengo lerroetan oso gogo onez jardungo dut puntu horietako batzuen inguruan -denei erantzutea luzeegi joko lukeelako-, edukiak pausoz pauso eta atalka aurkeztuz eta komentatuz. • **Hitz-gakoak:** *euskara, diagnosis, komunikazioa, hizkuntza-plangintza.*

**Abstract.** My deepest thanks to the people who have produced a critical interpretation of the *Proposal designed to meet the need for a New Basque language Framing* and for the comments made and for the fruitful ideas. Those who have evaluated the proposal in the report, like expert swimmers in the waters of Basque sociolinguistics, have skilfully immersed themselves in the whirlpool of my words without fear of getting drowned. These contributions are sincerely appreciated, because that was the very reason for my paper: to stimulate reflection and through it to search for new channels for Basque. In the paper below I will be more than happy to deal with some of these points -because it would take too long to reply to all of them-, by dealing with the content step by step and by presenting and commenting on it in sections. • **Key words:** *Basque, diagnosis, communication, language planning.*

Eskerronik beroenak *Euskarak duen Framing Berri baten premia asetzeko proposamenaren irakurketa* kritikoa egin duten lagunei, egindako iruzkin eta emandako ideiak aberatsengatik. Txosteneko proposamena ebaluatu dutenak, euskal soziolinguistikaren uretan igerilari trebatuak izanik, abilezia handiz murgildu dira nire lerroen zurrumbiloan itota bukatzeko batere beldurrik gabe. Ea denok elkar ezagutzen dugun Euskal Herri txiki honetan, gure bideak lehenago ala beranduago gurutzatuko direnez, zailago gertatzen zaigu kritikak elkarri egitea Maria-Jose Azurmendik aitortzen duen bezala: *“zenbait aldeko eta kontrako iritziak sortu zaizkidala, eta eztabaida honekiko BAT aldizkarian parte hartzea ere asko kostatu zaidala, zer esan eta zer ez erabakitzerakoan”*. Horiengatik guztiengatik, are meritu handikoa dute helarazitako zalantza eta iruzkinak. Benetan estimatuta daude ekarpen horiek, nire lerroen zioa horixe bera zen: gogoetak eragitea eta, horien eskutik, euskararentzako bide berriak arakatzea.

Hurrengo lerroetan oso gogo onez jardungo dut puntu horietako batzuen inguruan —denei erantzutea luzeegi joko lukeelako—, edukiak pausoz pauso eta atalka aurkeztuz eta komentatuz.

Ezin dira ahantzi, inolaz ere, Bat Soziolinguistika aldizkariko arduradunak, nire lana jendarteratu ahal izateko eskaini duten erakusleihen apartagatik. Ebaluatzaileak izan edo aldizkariko arduradunak izan, mila esker guztiei, bihotz-bihotzez.

## DIAGNOSIAN BAT, ORO HAR

### I

Adostasun nahikoa badago, oro har, euskarak azken hamarkadetan gizar-tean egin duen bidez, baina horrekin batera pausoak moteldu direla eta gainditu beharreko oztopoak handiak direla ere onartzen da. Horrela, iruzkin hauen egileek egiten duten diagnosa gazi-goza da. Horien adibide zehatzak, honakoak:

- Euskararen normalkuntzaren ahuleziatik begiratuta: *“Egindako lanak emaitzak eman dituenik ezin uka daiteke, izan ere, aurrerapausoak eman egin dira. (...) Halere, oraindik ez gaude lortu nahi dugun helburutik, euskararen normalizaziotik, gertu eta horrek egindako lana eraginkortzeko beharra ikustera garamatza.”* (Bilbao),
- Erabilerak dituen zailtasunei erreparatuta: *“unibertsitateko euskarazko ikasgelen edo institutuko “D” eredu ikasgelen aurreko pasilloak bat-batean “A” eredu”* bihurtzen direla eta *“euskararen erabilera esparru formaletan etengabe gorantz eta esparru ez formaletan oso makal areagotzen”* dela ikusita (Baztarrika).

**Eskerronik  
beroena  
Euskarak duen  
Framing Berri  
baten premia  
asetzeko  
proposamenaren  
irakurketa  
kritikoa egin  
duten lagunei,  
egindako iruzkin  
eta emandako  
ideiak  
aberatsengatik.  
Txosteneko  
proposamena  
ebalatu  
dutenak, euskal  
soziolinguistikar  
en uretan  
igerilari  
trebatuak izanik,  
abilezia handiz  
murgildu dira  
nire lerroen  
zurrumbiloan  
itota bukatzeko  
batere beldurrik  
gabe.**

**Nork bere gustuko hari-muturretik tira eginez, egile horiek berresten dute hizkuntzaren bilakaera eta egoeraren gaineko txostenean egin den irakurketa: aurrerapausoak ematen ari diren arren, euskara gizarte osora hedatzeko mugak zein oztupoak oso nabariak dira.**

- Merkatu kuotatik begiratuta: *“Euskararen merkatu-kuota (...) hel-duaro egonkorreko fasean dago, zertxobait igo da, baina, oro har, ez da asko mugitu azkeneko 20 urteotan eta urruti dago merkatu osokoa izatetik.”* (Erize).
- Diskurtso edo hizkuntza-politika ulertzeko eta interpretatzeko ikuspegitik: *“pentsa liteke ahultzen baino gehiago ez ote den indartzen ari (framing) “uzkurra” deiturikoa. Framing honen ezaugarrietarikoa da hizkuntza askatasuna aldarrikatzea, euskararen erabilera sustatzeko eta bermatzeko politika eraginkorrak, oro har, inposizioarekin lotzea, zilegitasuna edo justifikazio demokratikoa ukatuz azken 25 urteotan EAEn garatu izan den hizkuntza politikari... (Baztarrika).*

Nork bere gustuko hari-muturretik tira eginez, egile horiek berresten dute hizkuntzaren bilakaera eta egoeraren gaineko txostenean egin den irakurketa: aurrerapausoak ematen ari diren arren, euskara gizarte osora hedatzeko mugak zein oztupoak oso nabariak dira.

## FRAMING KONTZEPTUA ONGI ZEDARRITUZ

### I

Diagnosi horretan, halere, bi egilek zuzenketa edo iradokizun bana egin dute, nire testuan oso argi gelditu ez omen den puntu baten inguruan; bi-biek *framing*en izaeraren ingurukoak, hain zuzen.

Baztarrikaren zehaztasunak horrela dio: *“Framing bakoitzaren ezaugarri eta jarraitzaileei dagokienez, ñabardura ugari egin beharko genituzke, oker ibiliko baikinake iritzi bakarreko bloke homogeenak bailiran irudikatuko bagenitu bata nahiz bestea. Esaterako, euskararen aldeko eta kontrako jarrera suhar eta tinkoen ondoan, jarrera kritikoak, epelak, kontraesankorrak, “euskararen alde bai, baina segun eta nola”... askotariko jarrera, irudi eta sentipenak daude gure gizartean, agerian eta ezkutuan, ñabardurak lagun”. Bai, ados; ez dira soilik bi kolore euskararen ingurukoak eta, hortaz, nire egiten dut egile horrek dioena, “Mundua bainoago, munduak ditu euskarak”.*

Bigarren zehaztasuna Bilbaorena da: *“Ez duğu uste, hortaz, soilik bi marko egon direnik gaur egun arte. Euskararen aurka dagoenaren parean ez dago, adibidez euskaraz bizi nahi duena. Euskaraz bizi nahi duena erdian dagoela esango genuke.”* Horrekin ere ados: ez daude, ez, euskararen aurka dauden beste muturrean euskaraz bizi nahi dutenak. Izan ere, bi marko kontrajarrien eta simetrikoen definizioa oso bestelakoa litzateke. Mutur batean legoke euskararen alde egin eta, aldi berean, erdarari eskubide guztiak ukatzen dizkion diskurtsoa; beste muturreko planteamendua litzateke erdararen aldeotasuna eta, aldi berean, euskara

ezabatu nahiko lukeena. Horregatik, euskaraz bizi nahi duenak ez du zertan erdararen kontra egin ezinbestez, eta, hortaz, mutur batean ez, baizik eta erditik gertu legoke.

Argi eta garbi azaltzeko gauza izan ez banaiz ere, *Framing Aldarrikatzailea* eta *Framing Uzkurra* konstruko artifizialeak dira, egoeren deskribapena zein ulermena errazteko asmoz zientzian eraiki eta erabiltzen ohi diren *mota garbiak* (tipos puros) horietakoak. Hortaz, teorikoki eraikitako kasu horiek errealtatean ez ohi dira hain garbi agertzen eta hori bera da euskararen inguruan ere gertatzen dena. Hortaz, biztanleriaren gehiengoa muturreko bi *framing* horien arteko kasuistika zabalean barreiatuta aurki daitekeelakoan gaude, gu ere.

## BERRIKUNTZAREN PREMIA

### I

Ez da kasualitatea izango Azurmendi, Baztarrika, Erize eta Bilbaok, laurok, euskalgintzak duen berrikuntzaren premia azpimarratu izana; adibidez: “*Kontseiluan ere herri mugimendu antolatutik orain arte egindako lana nola eraginkortu pentsatzen hasiak gara, eta aurrerago agertuko dugun moduan etorkizuneko bidaian komunikazioa ardatz bihurtu behar dugu.*” (Bilbao). Izan ere, Euskal Herrian aldaketa sakonak gertatu dira Framing Aldarrikatzailearen sorreraren garaitik:

Mende bete pasatu da eta ordutik hona, badirudi ideien mailan onura batzuk lortu direla (...). Elebitasuna ezinezkoa delako axioma gainditu dela ematen du, hizkuntza aniztasuneko egoeraren abantaila eta zailtasunei begiak itxi beharrik gabe. <Beste hizkuntza> (erdara <inbaditzailea>) lurperatzeko gogo hori indargabetu egin dela esan daiteke, askatasunaren eta bizikidetasunaren mesedetan. Euskaldunen artean, propioaz gainera, hizkuntza guziak duin eta laintzat hartzeko joera zabaldu da.<sup>1</sup>

Berrikuntza horretarako gako-ideietako bat izan daiteke Xabier Erixe proposatu duen ezohiko ikuspuntua: “*soziolinguistikan gutxi landu diren baina oso pizgarriak diren Management-eko*” kontzeptuak. Izan ere, hizkuntzen auzia korapilatsua da berez eta, gainera, hizkuntza gutxituen biziberritzea gizartearen korrante nagusiaren kontra zein baliabide urriekin landu ohi da. *Managementeko* oinarria kudeaketa eraginkorra eta efizientea da eta euskara biziberritzeko behar diren baliabideak, aldiz, nahi baino askoz xumeagoak, mugatuagoak. Gauzak horrela, dimentsio erraldoia duen asmo horri aurre egin eta horretan arrakasta lortzeko ezinbestekoa da baliabideak ongi baino hobeto erabiltzea.

---

**Framing Aldarrikatzailea eta Framing Uzkurra konstruko artifizialeak dira, egoeren deskribapena zein ulermena errazteko asmoz zientzian eraiki eta erabiltzen ohi diren mota garbiak (tipos puros) horietakoak. Hortaz, teorikoki eraikitako kasu horiek errealtatean ez ohi dira hain garbi agertzen eta hori bera da euskararen inguruan ere gertatzen dena. Hortaz, biztanleriaren gehiengoa muturreko bi framing horien arteko kasuistika zabalean barreiatuta aurki daitekeelakoan gaude, gu ere.**

**Bide horretatik abiatuz eta euskararen merkatu-kuota handitu ahal izateko, management ikuspegian ikono antzeko zerbait den galdera hau proposatzen du Erizek: “Zergatik erosi beharko nuke nik euskara?”. Horren erantzunetan aurkitu beharko du euskalgintzak argudio berriak euskararik oraindik erosi ez duenak, hemendik aurrera eros dezan. Erizek dioenez: “Gakoa, beraz, ikuspegia aldatzea litzateke, eta herritarren nahi eta balio linguistikoetatik begiratzea, ez euskalgintzaren beraren ohiko nahietatik”.**

Horregatik, Erizeren proposamena ezin egokiagoa da gure indar eta baliabide mugatuekin emaitzarik oparoenak eskura ditzagun. Bide horretatik abiatuz eta euskararen *merkatu-kuota* handitu ahal izateko, *management* ikuspegian ikono antzeko zerbait den galdera hau proposatzen du Erizek: “*Zergatik erosi beharko nuke nik euskara?*”. Horren erantzunetan aurkitu beharko du euskalgintzak argudio berriak *euskararik oraindik erosi ez duenak, hemendik aurrera eros dezan*. Erizek dioenez: “*Gakoa, beraz, ikuspegia aldatzea litzateke, eta herritarren nahi eta balio linguistikoetatik begiratzea, ez euskalgintzaren beraren ohiko nahietatik.*”

Euskararen eskaintzan badaude, gainera, zenbait produktu ezberdin, Erizek gogorazi digun bezala; gutxienez, jarrera, ezagutza eta erabilera mailetan. Aldekotasuna —modu abstraktuan formulatuta— handia da gure gizartean, ezagutza ere asko zabaldu da, baina aurreko biak erosi dituzten bezero askok erabilera oraindik saltokietako apaletan dute zain. Hortaz, galdera birformulatu beharko litzateke: “*zergatik erosi euskararen erabilera prestazio handiak (askorentzat erosoagoa, denon arteko komunikazioa errazagoa...)* erdararen aurretik? Erosia izateko zergatik berriak bilatu eta aurkitu beharko zaizkio euskarari edo, horrela jokatu ezean, berez luzea den euskara hedatzeko bidea are askoz luzeago —luzeegi?— bihurtuko zaigu.

Azken finean, *Framing Berria* eta *Management* hurbilpenak elkarren gertukoak dira, komunikazioa izan edo merkatuaren kudeaketa izan, gizartearengana zuzentzeko paradigma bereko —eta berriko— bi osagai ezberdin; “*bezeroen terminoetan bezero bat sortzea zena, bere nahi eta beharrek bat etorrita, markoen terminoetan herritarren markoekin lerrokatzea eta erresonantzia berriak lortzea litzateke.*” (Erize).

## EZAGUTZA SENDOTIK ABIATUZ

I Zientzien diziplinartekotasuna eskatzen du, oro har, Maria-Jose Azurmendik, ezagutza soziolinguistiko aberatsago bat oinarri ezin egokiagoa litzatekeelako euskararen aldeko ahaleginetan egokiago jardun ahal izateko. Ados ideia horrekin ere. Hizkuntzen fenomeno *poliedrikoa* dela ezan genezake, alegia aurpegi askokoa eta, hortaz, hainbat ikuspegi zientifiko ezberdinetatik begiratzea posible ez ezik, egokia ere litzatekeelako. Zehatzago, Azurmendik ongi baino hobeto azaldu du Gizarte-Psikologiak bete lezakeen zeregina Soziologiaren eta Psikologiaren arteko eremu zabalean. Komunikazio edo botereko analisisetan, adibidez, hurbilpen anitzek eskaini dezaketen soziolinguistikaren panorama osatuagoa eta aberasgarria litzateke.

Askotariko hurbilpen zientifikoarekin batera, sakontasun eta zehaztasun kontzeptuala ere aipatu du Azurmendik. Ezin zaio ukatu nire idazkian gomendio hori kontuan hartzeko hainbat motibo egon badagoela, landutako testu horretako zenbait puntu ilun bezain azalekoak izan daitezkeelako. Errealitatea iraultzeko —euskararena barne— ezinbestekoa da ezagutza sakona eta zehatza izatea. Hartara, Azurmendiren gomendio horiek praktikara eramateak aukerak zabalduko lituzke euskal soziolinguistikak aurrerapauso handiak eman ditzan.

## EUSKARA BIDEGURUTZEAN

I

Zein bide hartzea da egungo auzia: euskararen aldeko ohiko paradigma nagusiarekin berdin segitzea ala paradigma hori egungo baldintzetara zabaltzea? Hori da bidegurutzea. Ez da, ordea, abertzaletasunean erakitako ulermen eta interpretazioko muinari eutsi ala, aldiz, diskurtso hori beste batekin ordezkatzeko. Egun paradigma nagusia eta ia bakarra den *Framing Aldarrikatzaile*az hausnartzea eta bere aukerak zein mugak ebaluatzea ez da ideia horri uko egitea, lehen begirada batean eta modu okerrean pentsa litekeen bezala.

Kontua ez da euskarari onura handiak ekarri dizkion —eta aurrerantzean ere ekar dakizkiokeen— *framinga* baztertzeko, baizik eta hizkuntza hori eremu zabalagoetara —orain arte mugatuak izan zaizkion gizarte giroetara— hedatu ahal izateko beste *framing* egokiago bat sortzea. Euskalgintzaren xedea bada euskara Euskal Herriko gizarte osora hedatzea, hori ahalbidetuko duen estrategiarik egokienei nola ekitea da erantzun beharreko galdera. Bilbaok dioenez, euskararen normalizazioa zeregin mardula da, gizartearen aldaketa zaila eta sakona: “*Besteak beste, hamar herritarretik zazpi hizkuntza berri bat ikasiko dutela aurreikusten ari garen heinean, gizarte-aldaketa sakonaz hitz egiten ari gara, ez ohitura-aldaketa soilaz.*” Erize ere bat dator Bilbaok gogorarazten dizkigun eginkizunaren dimentsio eta sakontasunarekin: “*Markoen teoria eta praktika asko landu dituen George Lakoff hizkuntzalari ezagunak esan duenez, “el cambio de marco es cambio social” (2004/2007, 17. or.)*.”

Testuan planteatzen du *Framing Aldarrikatzailea* ez dela goiburu horretarako egokia eta Erizek ere iritzi bera adierazte du bere iruzkinean: “*Euskararen munduak, teorian, merkatu osorako estrategia du, merkatu osoaren kuota bilatzen duela dio (Euskal Herria euskalduntzea), baina praktikan segmentu batean fokalizatutako estrategia eraman du, eta estrategia horrek ongi funtzionatu dio segmentu horretan, baina ez merkatu osoan.*” Arestian aitortu bezala, baliteke *Framing Aldarraikatzaile* eta *Framing Uzkur* konstruktoak

**Hizkuntzen fenomenoa poliedrikoa dela ezanenez, alegia aurpegi askokoa eta, hortaz, hainbat ikuspegi zientifiko ezberdinetatik begiratzea posible ez ezik, egokia ere litzatekeelako. Zehatzago, Azurmendik ongi baino hobeto azaldu du Gizarte-Psikologiak bete lezakeen zeregina Soziologiaren eta Psikologiaren arteko eremu zabalean.**

**Horregatik, euskarak, aurrera egingo badu, beharrezkoa du Framing Berri bat politikaren borrokatik ateratzeko. Erronka erraldoia da, berrikuntzaren bidetik eta hautu horrek eskatzen duen ausardiarekin abiatu beharrekoa: “Berritzaile izan beharko genuke. Berrikuntza da garaiotako ikur eta iparrorratz nagusia, eta berrikuntzaren joko-zelaiaren arauetara makurtu behar da euskararen etorkizunaren dema ere. Ausartuko al gara errebisionista izaten?” (Baztarrika).**

—Baztarrikak dioen bezala— mutur banatan kokatuta egotea. Bi mutur horiek oinarri dituzten gizarte sektoreak —sentimendu abertzalekoa eta sentimendu (batez ere) espainiarrekoa, hurrenez hurren— sinbolikoki kontrajarriak dira.

“*Estatu bat = nazio bat = hizkuntza bat*” planteamenduaren ohiko mugak ongi deskribatu ditu Baztarrikak: “*Aginte-makila duen hegemoniadunaren eta makila bera eskuratu nahi duen erresistentearen arteko hil edo biziko lehiatik puska bat badu bi framing horien arteko erlazioak. Galdera da ea borroka edo talka horretatik onurarik espero ote litekeen, nahiz euskararen erabilera indartzeko, nahiz bizikidetzarako.*” Aurkakotasun hori egunerokotasunaren pragmatismoak lausotzen duen arren, politikaren joko-zelaitik sarri elikatzen da identitate kolektiboaren bi ikuspegi horien arteko lehia edo aurkakotasuna. Dinamika horretan euskara harrapatuta gelditzen da; areago, arerio politikoen eskuetan arma gisa erabilia da euskara edo, hobeto, euskararen inguruko diskurtsoa eta jarduna.

Horregatik, euskarak, aurrera egingo badu, beharrezkoa du Framing Berri bat politikaren borrokatik ateratzeko. Erronka erraldoia da, berrikuntzaren bidetik eta hautu horrek eskatzen duen ausardiarekin abiatu beharrekoa: “*Berritzaile izan beharko genuke. Berrikuntza da garaiotako ikur eta iparrorratz nagusia, eta berrikuntzaren joko-zelaiaren arauetara makurtu behar da euskararen etorkizunaren dema ere. Ausartuko al gara errebisionista izaten?*” (Baztarrika). Eta Azurmendiren hitzok ere ildo beretik doaz: “*eguneko bi Framing horiek suposatzen dutena gainditu nahian, denentzako izango den Framing Berria eraiki eta bultzatu nahia, egitasmo nekeza izango dela iruditzen zait, modu ezberdinetan kritikatu ere, nahiz eta beharrezkoa den. Ausarta ba, esan bezala*”.

Berrikuntzaren baitan koka daiteke Azurmendik aipatzen duen *Euskararen erabilera areagotzeko estrategiak eskolatik abiatuta* (Kontseilua, 2009) izeneko liburua ere eta, egile horrek dioen bezala, *Framing Berriaren* osagarri garrantzitsu moduan uler daiteke; alegia, aurrera eraman beharko den berrikuntza sakonerako beste ale bat.

## AUSARDIAZ JOKATU BEHARRA

I Bestalde, euskararen inguruko berrikuntza ezin da *lifting* gisa ulertu. Hori baino askoz gehiago izan beharko du, euskara biziberritzen arrakasta lortuko bada. Gainera, Bilbaok azaltzen duenez, gizartean orain badaude aukerak apustu sendo eta ausarta egiteko: “*Hizkuntza-politiketan jauzi kualitatiboak emateko beharra jendartearen hedatua dago, euskaraz bizi nahi duten herritarrek erantzunak, emaitzak nahi eta behar dituzte eta politikoki*

borondatez jokutzen baldin bada, aldaketa horiek egiteko abagunea zabaltzen ari dela ikusten dugu.” Hala ere, esango genuke apustuaren aldeko baldintzak euskaraz bizi nahi duten herritarrengan baino ez direla ematen, hitz horietan jasotzen den bezala. Hortaz, zer gertatzen da gizarteko beste gizataldeekin? Adibidez, euskara ongi ikusi, bai, baina —erdaldunak edo euskaldunak izanda— hizkuntza horretan bizitzeko premiarik ez duten sektoreekin? Zer, espainiar sentitu eta *Estatu bat = nazio bat = hizkuntza bat* ideia beren egiten dutenekin? Izan ere...: “*bi aukera ditu euskararen munduak: merkatu osorako estrategia, merkatu osoan aritzeko gai diren balioekin, ala segmentu batean fokalizatutako estrategia, bakarrik segmentu horretarako balio duten balioekin. Baina, noski, bata zein bestea aukeratzeak erabakiarekin kontsekuente izatea eskatzen du*” (Erize).

Hortaz, aldaketa soziala burutzeko ausardia beharko da, baina ondo gidatua. Hau da, ohikoa den estrategia ongi kudeatzea ez ezik, horren osagarria izango den beste berri bat sortuz. Benetako eta sakoneko berrikuntza, hain zuzen. Horregatik luzatu da *Framing Berria* eraikitzeke proposamena; Erizek gogorarazten digun bezala: “*Markoek arrakasta lortzen badute, adostasun berri bat zabaltzen dute gizartean eta, horrela, mugimenduak aldeko pertsonak mobilizatzea, neutroak irabaztea eta aurkariak desmobilizatzea lortzen du (Sonow eta Benford, 1988)*”.

Zailtasunak ez dira hutsalak, baina Azurmendik ustez helburuak merezi du horretan saiatzea: “*Hala ere, euskararen alde eginez, pena merezi du saio berriak egitea, harreman-eredua berritzea, teoria berriak erabiliz diskurtso berriak sortzea, eta abar, Txostenean proposatzen zaigun bezala*”.

## BESTELAKO (EUSKAL) MUNDU BAT POSIBLE DA

### I

Euskararen merkatu-kuota handitzeko aukera izatea ez ezik, *Framing Berriaren* proposamenean maila etikoko beste onura batzuetan sakontzeko aukera ikusten dute Erize eta Baztarrikak, hala nola aniztasun, diferentziazio, berdintasun, argudio demokratiko-pluralista, indibidualtasun, arriskuak hartzeko ausardia, kultura irekia finkatze, egiatik eta balioetatik aritzean...

*Onkeriatzat* jo liteke gaurko munduan hain urriak diren balio etiko horiek euskararen aldeko asmoetan txertatu nahi izatea. Izan ere, *mundua mundu denetik* ankerkerian eta zapalkuntzan oinarritua da, eta uste da bestelako balio horiek *gizarte sektore ahulen eta galtzaileengan* baino ez dira agertzen.

Hala ere, baliteke kritika ulergarri hori egin lezaketen gehien-gehienek, aldi berean, *Bestelako Mundu Baten* aukera gogo onez ikustea. Puntu

**Euskararen merkatu-kuota handitzeko aukera izatea ez ezik, Framing Berriaren proposamenean maila etikoko beste onura batzuetan sakontzeko aukera ikusten dute Erize eta Baztarrikak, hala nola aniztasun, diferentziazio, berdintasun, argudio demokratiko-pluralista, indibidualtasun, arriskuak hartzeko ausardia, kultura irekia finkatze, egiatik eta balioetatik aritzean...**



**Horregatik  
guztiagatik,  
Bestelako Euskal  
Mundu Bat  
posible egiteko  
dimentsio  
etikoari ere  
erantzun beharko  
dio Framing  
Berriak.**

horretan, bitarte/helburu binomioari erreparatu behar diogu, bi-biak elkarri lotuta agertzen baitira, Joseba Sarrionandiaren ustean: “...helburu diren harreman moduak abiapuntutik hasi behar dira gauzatzen. Biolentzia beharrezkoa ez den gizartea eraikitzeke borrokak bortizkeriarik gabeko estrategia inplikatzeko du”.<sup>2</sup>

Hortaz, Bestelako (Euskal) Mundu Bat desiragarritzat joz gero, kontuan hartu beharko genituzke Baztarrikaren hitzot: “saihestezina da ikuspegi etikotik sortzen den galdera: behartu al liteke giza-talde bat bere onarpenik gabe jokabide linguistiko batzuk izatera, nahiz eta jokabide horiek ezinbestekoak izan euskarari indartsu eusteko?” Auzi etikoa ez ezik, estrategikoa ere bada; alegia, “lortu nahi bada Euskara izatea euskal-komunitate guztiaren osagai positiboa, aktiboki positiboa” (Azurmendi), asmo hori lorgarri liteke bortxaren bidetik? Ez, Sarrionandiaren ustea zuzena bada, bederen.

Balio etikoen eremuan, berriz ere, hizkuntza-bizikidetzat eratzea guztien eskubidea eta guztien egitekoa bada, ezberdinen arteko adostasun sendorik gabe nekez egingo du aurrera euskarak. Hortaz, kontsentsua indarberritu eta zabaldu beharra dago, euskal gizartearen aniztasuna onartuz eta behar besteko zabaltasun eta malgutasuna erakutsiz. Horregatik guztiagatik, Bestelako Euskal Mundu Bat posible egiteko dimentsio etikoari ere erantzun beharko dio Framing Berriak. ●

## OHARRAK

1. Sarrionandia, J. (2010). *Moroak gara behelaino artean?* Iruña. Pamiela (368. or.).
2. *Ibid.* 467. or.